

ZMA



AIERT COBO eta ENEKO GARCÍA

TeleZorroza



Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com



:Kasi Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPIILANDA-ZORROZGOTI ILHI
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75
📧 zuzendaria@zazpiilandaeskola.eus



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILHI
Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net




I.E.S. ZORROTZA B.I.
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

Zorrotz Morrotzeko albisteak, erreportajeak, elkarrizketak... **orain sarean ere irakurgai**

www.zorrotzmorrotz.eus 🔍

Sartu gure webgune berrira!





- Aldizkariaren eduki guztiak web formatuan
Elkarrizketak, erreportajeak albisteak, ...
- Agenda
Zorrotzako ekitaldi guztiak
- Hemeroteka
ZMeko ale guztiak PDF formatuan

Eta baita sare sozialetan ere:

 @zorrotzmorrotz
  @ZorrotzMorrotz
  @zorrotzmorrotz



ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria



ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

94. alea. 2025eko uztaila

www.zorrotzmorrotz.eus
zm@zorrotzmorrotz.eus
@ZorrotzMorrotz
@zorrotzmorrotz
@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Alaitz Aldabaldetreku

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Edukia erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Bilbao
UDALA
URRUTIA

sarrera

Auzoa egin eta auzo bizia garela ospatu ere bai

Sader-Profersaren isuriei buruzko informazioa biltzen jarraitzen dugu: enpresetatik sartzen eta irteten diren kamioien identifikazioan anomaliak salatu ditugu, eta Udalari eremuan aparkalekuei zein garbiketara eta hondakinei buruzko arauak betearazteko eskatu diogu etengabe. Izan ere, enpresa horiek gure inguruetik ahalik eta azkarren eta behin betiko atera daitezzen nahi dugu. Horregatik, pasa den ekainaren 12an udaletxe aurrean elkarretaratzera deitu genuen berriro, eta era berean, enpresa horien ondoan eraikitzen ari diren parke berriari buruz dugun kezka ere helarazi dugu, ez baitzaigu logikoa iruditzen industria-jarduera horiek parkearen ondoan mantentzea.

Halaber, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak osasun publikoa eta kalitatezkoa lortzeko Osasun Zentroaren aurrean hileroko egiten diren kontzentrazioekin jarraitzen dugu, gai honek guztiok kezkatzen gaitu eta.

Trenbide-pasaguneak lurperatzeari dagokionez, ahalik eta informaziorik gehien biltzen ari gara, prozesuaren zein puntutan gauden jakiteko. Auzo Elkarteen urteko Batzar Nagusian hain garrantzitsua den gai honi buruzko datuak eman ahal izango ditugula uste dugu.

Bestalde, azken urteotan ohi den bezala, "Zorrotza Gozatu ta Bizi" programa eta Zorrotza Eguna ospatu ditugu ekainean. Programa zabal eta anitza, sozialki bizirik dagoen auzoa garela aldarrikatzeko. Egunero auzoa egitea bezain garrantzitsua baita Zorrotza bezalako komunitate bateko kide izatearen sentimendua ospatzea. Mugimendu sozial eta herri-tar zabala duen auzoa gara, une zailetan ere etengabe lan egiten duena. Ilusioz, koherentzia eta irimotasunez, guztiontzako auzo hobea egiteko helburuz.

Horretan gabiltza: lagundu eta parte hartu!



zorrotza
auzo elkartea

SAZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepeidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfn. 94 441 61 46

Matrikula zabalik
2024-2025
ikasturtea

The aKdmy

Ingeles eta eskolako laguntza

666017195
the_aKdmy

Zorrotza Kastrexana errepeidea, 7



Sader eta Profersa Zorrotzatik behingoz ateratzeko data bat zehazteko eskatu diote auzotarrek Udalari beste protesta batean

Aire garbia arnastu eta etxeko leihoak beldurrik gabe ireki nahi dituztela aldarrikatu zuten hainbat herritarrek Bilboko udaletxean, Sader Profersa kanpora plataformak deituta. Bildutakoek Bilboko Udalari gogorarazi zioten hamar urte bete direla Sader enpresarekin hitzarmena sinatu zuenetik Zorrotzan bere jarduera eten zezan.

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARIN

Sader Profersaren jarduera hirigunetik ateratzeko behin betiko amaiera-data argia eskatu zioten hainbat auzotarrek Bilboko Udalari ekainaren 12an udaletxeko eskaileretan egin-dako beste elkarretaratze batean.

Egoera larria eta premiazkoa den honetan, instituzioek ezer ez egiteari eustea ez dela ulargarria uste dute *Sader Profersa kanpora!* plataformako kideek. “Ez da onargarria hondakin arriskutsuen industria hau hirigunean mantentzea”. Arazoak urte osoan eragiten badu ere, udan tenperatura handiagoak direnean, zailagoa da jasatea, bizilagunek ezin baitituz-

te leihoak lasaitasunez ireki: “Arrain ustela, zaborra, amoniakoa, sufre dioxidoa... askotarikoa dira kiratsak. Haizearen norabidearen arabera, jasanezina da leihoak irekitzea.”

Protestaren antolatzaileek gogora ekarri zuten hau guztia azken urteotan ikus-entzunezko lan askoren agertoki bihurtu den Bilbon gertatzen ari dela. Baina udalerrian bertan ere, duela hamarkada bat baino gehiago hasi zen eta inork ikusi nahi ez duen telesail bat badagoela salatu zuten: Zorrotza eta inguruko auzoetako bizilagunek “osasun-larrialdi jasanezin” bateko egiazko telesailen murgilduta jarraitzen dutela salatu zuten.

Fikziozkoa izatea nahiago balute ere, Sader eta Profersa enpresek sortzen duten kiratsa eta kutsadura “ez da industria abandonatu baten paisaia, ezta zinema dekoratua ere, benetako jarduera bat baizik, arrisku handikoa eta biztanleriarentzat ondorio larriak dakartzana”. Eta telefilmek eta zinemaren metaforari eutsita, utzikeria instituzionala eta herritarren nekea azalarazten dituen “istorio amaigabe” honen kronologia egin zuten *Sader Profersa kanpora!* plataformako kideek elkarretaratzea bukatu baino lehen irakurritako komunikatuan.

Hala, plataformako kideek berriro gogorarazi zuten 2012an instituzio publikoak, enpresak



eta Auzo Elkarteak biltzen zituen “Usainen Mahaia” azken bilera egin zuela, “elkarriketa-gune egonkorrik sortu gabe eta eskatutako osasun-asterketa epidiomologikoak baztertuta”. Handik hiru urtera, 2015ean, Bilboko Udalak gaur egun bete ez den hitzarmen bat sinatu zuen Saderrekin, bere jarduera Zorroztan amaitzeko prozesua bizkortzeko.

Ordutik, usain jasanezinengatik eta arnasa hartzeko aire egokirik ezagatik 112ra egindako deiak zenbatezinak izan dira; 2022an eta 2023an Saderrek baimendutako hondakin arriskutsuen kopurua gainditu zuen; 2024an bi istripu gertatu ziren eta behin-behinean ongarri-planta itxiarazi zuen horrek; eta azken ikuskapenek adierazi dute airearen, uraren eta

lurzoruairen babes-neurriak ez direla betetzen. Aurrekari hauek guztiak gorabehera, eta nahiz eta enpresen jarduera auzotik lekualdatzeko herri-mobilizazioak ugariak izan diren, herri-tarrek ez dute erantzun argirik jaso.

Institutuko airea ez da osasungarria

Era berean, Sader Profersa kanpora! plataformak jakinarazi zuen soilik egun batzuk lehenago Zorroztako institutuko ikasleek AmiAire airearen kalitatea monitorizatzeko zientzia herrikoiairen proiektuan parte hartu zutela. Ikasleek egindako lanak frogatu zuen beren getetako airea ez dela osasungarria, eta halaber, lantegitik gertuen zegoen neurgailuak datu okerrenek jaso zituela, partikula kopuru gehien antzemanda.

ehbildu

STORKIZUNA DA ORAIN

Esperantzaren nazioa.



ASKABIDE ZORROTTZA



XXVIII. Ipuin Lehiaketaren sariak banatu dira

ZORROTZ MORROTZ

Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira ekainaren 23an Azoka parkean egindako umeentzako ikuskizun baten ondoren. Epaimahaiak benetan lan handia izan du berrir, guztira 200 ipuin baino gehiago jaso baitira. Gainera, aipagarria da lanen kalitatea: aurreikusita zeuden maila bakoitzeko lehenengo eta bigarren sariei, nagusien kasuan, hirugarren bat gehitu behar izan diete eta, horrez gain, bi mailetan aipamen batzuk egin behar izan ditu epaimahaiak. Mila esker idazle guztiei parte hartzeagatik!

Zorionak sarituei. Hona hemen haien izenak:

12 urtetik behera:

- **1. saria:** Mikel De La Fuente Llantada.
- **2. saria:** Miren Herrera Barreiro.
- **Aipamena:** Bjahina Doubali.

DBH eta batxillergoko ikasleak:

- **1. saria:** Ugaitz Martín Ortega.
- **2. saria:** Aiala Rodríguez Sautua.
- **3. saria:** Jone Osobio Rueda.
- **Aipamenak:** Ziyad Ahachami eta Erika Gallardo Espinosa.

A8 autobidearen gaineko pasabidea berrituko da

ZORROTZ MORROTZ

Udalak iragarri duenez, hiriko "azpiegitura berezietan" egiten den zaintza-lanaren ondorioz, hainbat beharizan antzeman dira, eta mantentze-lanak egin behar dira oinezkoentzako hainbat pasabide-tan, besteak beste, Usandizaga musikaria eta Ikastalde kaleak lotzen dituen eta A8 autobidearen gainetik igarotzen den oinezkoentzako pasabidean. Gure inguruko klima hezeak eragin ditu antzemandako narriadura gehienak.

Azpiegitura hori Aldundiaren jabetzakoa da, eta, beraz, bi erakundeek akordio batera iritsi beharko dute berritze-lanak egiteko eta, ondoren, jabetza eskualdatzeko.



Bilboko Udalak FEVEko bi tren pasabideak lurperatzeko sinatutako hitzarmena luzatzea onartu du

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioaren, Adifen eta Udalaren arteko hitzarmena aldatzea eta luzatzea onartu zuen ekainaren 11ko Gobernu Batzarrean, FEVEren trenbidea auzoan integratzeko eta bi tren pasabideak lurperatzeko. 1. eranskina onartuta, hitzarmena lau urtez luzatu eta urteko ordainketak egokitu dira.

2019ko urtarrilean, lankidetzatza-protokoloa sinatu zuten Sustapen Ministerioak, Bilboko Udalak eta ADIFek, gai horri heltzeko. Hain zuzen ere, protokolo horren xedea FEVEren linearen trenbidea Zorrotzako

geltokiaren inguruan txertatzea eta obrek eragingo duten hiri-eraldaketa gauzatzea zen.

Jarduketa horiek garatzeko, 2021eko uztailaren 14an sinatu zen orain luzatuko den hitzarmena.

Proposatzen diren jarduketaren artean, aurreikusten da metro bateko zabalerako linea Zorrotza auzotik igarotzean lurperatzea, Zazpilanda azpian -1.933 metro inguruko luzerarekin, arrapalak eta sarbide-tarteak barne-, eta, ondorioz, dauden bi trenbide-pasaguneak kentzea. Gainera, lurpeko geltoki berri bat eraikiko da auzoan.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



// Lanerako izan ezik, ez dut Bilbora joan beharrik //

TANYA DELGADO LÓPEZ

Jaiotokia: Algeciras, (Cádiz)

Noiztik: 2020ko irailetik

Adina: 33 urte

Lanbidea: Erizaina.

Bere bizitzan aldaketa bat behar zuelako eta lan baldintza hobeen bila heldu zen gurera Tanya duela bost urte. Eguraldia oso gustukoa izan ez arren, ez zaitzaion batere kostatu gurean egokitzea. Egun, bizitza hemen dauka eta zoriontsua da Zorrotzan, giro aparta dagoelako eta auzoak denetarik duelako

TESTUA ETA ARGAZKIAK: NAROA PEÑA

Nolatan edo zergatik etorri zinen?

Urte batzuk neramatzan erizain lanetan Gibraltarren, eta osasun publikora aldatzeko gogoia nuen. Garai hartan, pandemia zegoen, eta SASek hilabeteko kontratuak eskaintzen zituenn, beraz, ezin nuen Gibraltarren nuen lan finkoa utzi osasun publikoan hilabeteko kontratu bat hartzeko. Uda osoa bi lekuetan %100eko kontratuarekin egon nintzen. Bestalde, Gibraltarreko lankide bat hona etorri zen lanera, oso pozik zegoen eta lan baldintzak oso onak ziren. Aldaketa bat behar nuen nire bizitzan eta horren aldeko apustua egin nuen. Eta hemen jarraitzen dut, ia 5 urte geroago...

Oso ezberdina da hango bizimodua edo gurearen antzekoa da?

Ez dauka zerikusirik. Nire kasuan, hiriaren kanpoaldean bizi nintzen, menditik gertu eta paisaia oso polita eta lasaia zen, baina autoa behar nuen edozertarako. Han bizitza ez da auzoetan egiten, hemen bezala.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituetara moldatzea?

Ezta pentsatu ere! Lehen unetik oso ondo sentitu nintzen hemen, bai lanean, bai egunerokoan. Oso erraza izan zen egokitzea, nahiz eta eguraldiak batzuetan hemen egon behar ote nuen ala ez pentsarazi zidan.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Denetarik daukala. Lanerako izan ezik, ez da Bilbora joan behar ezer egiteko... Giroa dago eta ondo komunikatuta dago. Bilbora bisitan norbait etortzen denean orduan erdialdera joaten naiz, baina normalean, auzoan egiten dut bizitza (erosketak, kirola, poteoa...). Eta txarrari dagokionez, ez zait ezer bururatzen. Esango nuke ez dagoela ezer gustatzen ez zaidanik auzoan.

Ia bost urte hemen eman ondoren, Cadizeko zeren falta duzu gehien?

Batez ere, familia. Eta hondartza gertuxeago izatea.

“Eguraldia izan ezik, oso erraza egin zitzaidean hemen egokitzea

Zure herrira askotan bueltatzen zara?

Bai, urtean gutxienez bizpahiru aldiz joaten saiatzen naiz, behintzat, Eguberrietan eta udan.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Bada, esan dizudan bezala, erizaina naiz. Orain osasun-zentro batean egiten dut lan, goizez izaten dut txanda, arratsaldean eus-kaltegira joaten naiz eta gero Bizifitness-en entrenatzera joaten saiatzen naiz (nire deskarga momentua da). Asteburuetan bikote-kidearekin eta lagunekin denbora pasatzen saiatzen naiz, zerbait hartzeko, ibilaldiren bat egiteko edota San Mamesera joateko.

Euskara ikasi duzu?

Ikasten ari naiz, A1 mailan nago.

Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa izan duzu ala Zorrotzan betiko geratzeko erabakia hartu duzu?

Gaur egun ez daukat inora itzultzeko asmorik. Nire bizitza hemen daukat eta zoriontsua naiz. Familiafen falta dudan arren, hegazkinez ordu bat eta erdira baino ez daude... Gainera, ez legoke modurik nire bikote-kide euskalduna hemendik inora eramateko, kar-kar!



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94 490 12 59

ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA +
KRISTALAK GOI-GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean +- 4,00 eferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako

ibarretaluxury
OPTICA

RPS: 213/18



Jolasean ala lehiaketan, atletismoa goatzeko

Bilboko Atletismo taldea duela urte asko Santutxun sortua bada ere, duela hamabost bat urte sortutako Atletismo Eskolak Zorrotzako pistan egiten ditu bere jarduerak. Horri esker, auzoko gero eta ume gehiago hasten dira kirol honetan; izan ere, atletismo eskolan parte hartzeko, goatzeko eta kirola egiteko gogoia baino ez da behar

TESTUA: AITOR MARIN

ARGAZKIAK: BILBAO ATLETISMO SANTUTXU KLUBA

Datorren urtean, 40 urte beteko dira Bilbao Atletismo Santutxu Kluba sortu zenetik. Bere hastapenetatik klubak atletismoa zabaltzeari eta sustatzeari ekin dio: alde batetik, kirol-ekitaldiak eta kirol-probak antolatuz; eta, bestetik, atletak eta taldeak prestatuz hainbat lehiaketatan parte hartzeko.

Taldea Santutxun sortua den arren, astiro-astiro hazi egin zen eta auzo horretatik haratago hedatu zen. Gauzak horrela, izena ere aldatu behar izan zuen. Hasierako izenari “Bilbao” gehitu behar izan diote, hiriko talde erreferentzia bilakatu baita.

Gaur egun, 60-70 gazte entrenatzen dira Atletismo eskolan

Haisera batean klubak talde nagusia baino ez zeukan, erdi profesionalak edo profesionalak ziren kirolarientzat. Hori duela hamabost urte gutxi gorabehera aldatu zen, Zorrotzan entrenatzen hasi zirenean, eta gure auzoko kiroldegian Atletismo eskola sortu zutenean. “6, 7 edo 8 urterekin hasi ziren ume batzuk nagusiak bihurtu dira gurekin” azaldu du Jon Alzagak, eskolako koordinadoreak.

Gaur egun, 60-70 gaztek (DBHko 2. mailara artekoak) entrenatzen dute Atletismo eskolan, eta kopuru berdintsua da federatuen artean (nagusiak). Horretaz gain, nagusien beste talde bat dago goi mailako atletez osatua (emakuzmekoak guztiak), Europa mailako txapelketetan lehiatzen duena. “Espainiako txapelketetan askotan irabazi edo gutxienez podiumean geratu direnak” dira azken hauek. Asfaltoko, pistako eta erresistentzia-probetako lasterketetan lehiatzen dira, baina, batez ere, crossean jarduten dute ondoen.

Eskolan bost entrenatzaile daude, eta beste bost nagusiekin aritzen dira. Entrenamenduak oso ezberdinak dira, jakina. Nagusiek indarra, abiadura, eta oro har teknifikazioa



Oihane Merino (ezkerrean), 2020ko azaroan ZMen elkarriketatu genuen Maialen Miera (goian), eta Iraia Vicente auzokideek lorpen ugari izan dituzte dagoeneko estatu mailan



deritzona lantzen dute. Umeekin, berriz, oso bestelako helburuak dituzte: “haiek kirolaz gozatzea, lagunak egitea, eta sozialki integratuta egotea lortu nahi dugu” Alzagaren hitzetan.

Zorrotzako gero eta ume gehiagok parte hartzen dute eskolan. Atletismo pista hemen egoteak eta entrenamenduak auzoan egiteak eragin handia duela onartu du Jon Alzagak. Zorrotzako lagunak kopurua nagusietan asko murrizten bada ere, astiro-astiro, teknifikazio taldeetan dauden gure bizilagun Maialen Mierak, Iraia Vicentek edota Oihane Merinok lorpen ugari izan dituzte dagoeneko estatu mailan. “Hirurak hasi ziren eskolan umeak izanda, gozatzen eta lagunak egiten”.

Eskolan sartu ahal izateko, kirola eta, bereziki, korrika egiteko gogotsu joatea baino ez da behar. “Gehien ezagutzen den abiadura disziplinaz gain, atletismoan askoz gehiago badaude: erresistentzia, jauzierak, jaurtiketak, ...” Eskolan sartzen den lagun orok disziplina horiek guztiak ezagutu eta probatuko ditu. Horrela, “ia guztiek beren lekua topa lezake- te atletismo barruan”. Klubaren webgunean, ordutegiak, tarifak, eta izena emateko baldintza guztiak topatu daitezke. Ikasturteko jarduerak normalaz gain, klubak campus irekiak ere antolatzen ditu Aste Santuan zein udan (ekainean).

Belaunaldi berriak trebatzeaz eta kirolariak entrenatzeaz gain, izen handiko hainbat proba ere antolatzen ditu taldeak. Azken 15-20 urteotan *Bilboko Nazioarteko Milia* antolatu dute. Aurtan, horren ordez, lehendabizikoz, Bilboko erdialdeko kale ezagunenak zeharkatu dituen 10K Bilbao lasterketa antolatu dute. “Oso pozik gaude, lau mila pertsona baino gehiagok parte hartu zuten eta” azaldu du harro Jon Alzagak.

Era berean, testu hau idazteko momentuan oraindik ospatu gabe zegoen Euskadiko Txapelketa antolatu dute hilaren 28 eta 29an Zorrotzako pistan. Bertan euskal atleta hoberenek parte hartu dute. Ekintza honek aurreko urteetan antolatutako *Bilboko Nazioarteko Meeting* izeneko ordezkatu du.



Vía gráfica

• diseinu grafikoa
viagraficazorrotza@gmail.com



AIERT COBO eta ENEKO GARCÍA: *TeleZorroza*

“ Saiatuko gara ahal dugun heinean gure bi atalak mantentzen: berriak eta DJa ”

Azken urteotan auzoko saltsa guztietan bi gaztetxo dabilta Zorrotzan gertatzen den oro argazki eta bideoen bidez kontatzen. Hori ez ezik, Aiert eta Eneko DJ lanetan hasi dira, adin guztietako auzotarrak dantzaz jarriz beraien alaitasun kutsakorrarekin. Gaur Zorrotza Eguna da eta soinu ekipoaz arduratu ondoren Trapagara joango dira, auzotik kanpoko beren lehen emanaldia egitera.



“2023ko irailetik
hona hamar DJ saio
eman ditugu jada

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | ARGAZKIAK: AITOR MARÍN

Zenbat urte dituzue eta noiztik ezagutzen duzue elkar?

Aiert: Txikitatik ezagutzen dugu elkar, eskolako lagunak gara. Biak gara 2009koak.

Eneko: Ni denboraldi batez Deustuko ikastolan ikasi banuen ere, Zorrotzako Institutuan nabil orain. DBHko 4. mailan gaude, bukatzeaz.

Nondik dator Telezorroza sortzearen ideia?

Eneko: Nire familiaren herrian, Azagran (Nafarroan), bada tokiko komunikabide bat jaietan eta horrelakoetan bideoak egiten dituen, Internetera igotzeko. Orduan, pentsatu nuen ideia ona izan zitekeela Zorrotzan antzekoren bat egitea eta Aierti proposatu nion.

Aiert: Bere ideia orain dela asko kontatu zidan, artean Lehen Hezkuntzan geunden. Pixkanaka-pixkanaka ideari forma ematen joan ginen eta, azkenean, 2021eko otsailaren 20an, Telezorroza profila sortu genuen sare sozialetan.

Nolakoak hastapenak?

Aiert: Hasieran auzoko berriak ipintzen genituen baina bere herrian bezala egin nahi genuen, auzoko jaietan bideoak grabatu eta abar.

Eneko: 2021ean pandemia zegoenez, aukerak apurka-apurka iristen hasi ziren. Hala ere, txikitatik Gure Lurran ibili garenez, erraza izan dugu auzoan zer mugitzen den jakitea eta hortik hasi ginen, auzoko berriak gure sare sozialetan zabaltzen.

izan ziren

Nola egiten duzue hori guztia?

Aiert: Hainbat eragileren sareetan dauden berriak, deialdiak, irudiak, bideoak eta abar gure sareen bidez hedatzen ditugu. Bestalde, ekitaldietatik pasatzen gara irudi eta bideoak hartuta, gure argitalpen propioak eginez.

Eneko: Auzoko ekitaldietako argazki eta bideoak bildu eta sailkatzen ditugu argitaratzeko eta, batzuetan, bideomuntaiak ere egiten ditugu. Gainera, elkarrizketa batzuk grabatu ditugu, esaterako Zorrotzako Futbol Sala taldeari eta Zorrotza Futbol Taldeari.



“Auzoko berriak gure sareen bidez hedatzen ditugu

Auzoko zenbait talderekin elkarlanean ere aritzen zarete ...

Eneko: Zorrotzak Areto Futboleko argazkilaririk ofizialak gara eta 2023tik Zorrotzak Jaietarako komunikabide ofiziala ere bagara.

Aiert: Gainera, Gure Lurrakoak izanda jarduerak antolatzen laguntzen diegu eta iaiz Txinbotarrak konpartsan parte hartzen hasi ginen, txosna montatzen eta DJ kalejira egiten. Zorrotza Futbol Taldeari ere lagundu genion, Errege Kopa auzora ekarri zutenean. Jai Batzordean ere ahal dugun guztian laguntzen dugu, esaterako, gaur sonorizazioaz arduratu gara.

Nola sortu zenuten DJ atala?

Eneko: Nik musika oso gustokoa dut; eta Aiertek, berriz, soinu eta irudi kontrola. Jai Batzordeak 2023ko jaietarako DJ leihaketa bat antolatu zuen eta erabaki genuen izena ematea. Uste dut ni ondo moldatzen naizela jendea animatzen eta Aiert musika nahasten.

Aiert: Bideo bat grabatu behar zen leihaketarako eta irabazleen artean geratzeagatik jaietako lehenengo gauean jo genuen, kioskoan. Izugarria izan zen, gure estreinaldia eta kriston soinuarekin gainera!

Eta geroztik ez zarete gelditu...

Eneko: Ez, urte horretan bertan Gure Lurrak eta Jai Batzordeak Auzokan antolatutako Gau

Beltzan ere DJ animazioa egin genuen. Eta 2024an ere saio eskerga izan dugu. Inauterietan jaitsiera ondoko jaia alaitu genuen. Zorrotza Egunean, berriz Gaztetxean jo genuen. Eta Aste Nagusian, gure lehen DJ kalejira egin genuen Areatzako kaitik, Marijaia, pregoilari eta txupinerarekin, Txinbotarrak konpartsa- ren egitarauaren barruan.

Aiert: Gero, Zorrotzak Jaietan berriro ateraginen kalejiran eta azaroan beste behin ere, Harrapari Taldearen 15. urteurrenerako. Aurten, otsailean, Telezorrozaren 4. urteurrena ospatzeko saio bat antolatu dugu Gaztetxean eta Txinboegunean auzotik ateragara kalejiran. Gaur arratsaldean Trapagara joango gara kalejira egitera, Lonjero Eguna dela eta; auzotik kanpoko gure lehen emanaldia, Aste Nagusikoa aparte utzita, noski.

Nola suertatu da Trapagakoa?

Eneko: Sare sozialen bidez aurkitu gaituzte, DJ kalejira baten bila zeuden.

Aiert: Eta gu pozik!

Zuen lehen saiotik hona soinu, argi eta efektuetan hobetuz joan zarete, nola ikasi duzue?

Eneko: Hori Aiertek kontatuko dizu, ni ez naiz trebea gauza horietan, nirea animatzea da.

Aiert: Nire aldetik ikasten joan naiz, kuriositateagatik. Hala ere, otsaileko festaren ondoren, Iker Mentxakak - lagun batek - proposatu

// Gurasoek hasieratik babestu gaituzte proiektuarekin //

ZM | 15

Nondik datorrizue musikarako zaletasun hori?

Gure aitak oso musika zaleak dira eta talde asko ezagutzen dituzte. Musika asko entzun dugu.

Musikaz aparte bestelako zaletasunik?

Aiert: Txirrindularitza, baina lehiazteari utzi diot.

Eneko: Nik arrauna egiten dut Deustun, ia egunero entrenatzen dut. Aurtun Euskadiko txapeldun geratu gara eta Espainiako hirugarren.

Zer ikasiko duzue hurrengo urteetan?

Aiert: Mikroinformatikako erdi-mailako zikloa egingo dut, nire helburua ikus-entzunezkoen goi-mailako zikloa egitea da.

Eneko: Nik Gizarte Zientzietako Batxilergoa egingo dut, ziur aski enpresa ikasketak egiteko.

Nola ikusten dute zuen gurasoek Telezorroza proiektua?

Eneko: Gurasoek beti esaten digute lehentasuna ikasketak direla baina hasieratik babestu egin gaituzte proiektu honetan.

Aiert: Gaur nire aitak eramango digu gurditxoa bere furgonetan, adibidez.

ZORROTZA
1987-2017



zidan Gaztetxeko teknikariekien elkartzea, euren gaitasunak ikasteko eta jadanik hainbatetan egon gara beraiekin. Nik argiak ditut gustuko; Ikerrek, berriz, soinua.

Gaur bozgorailu berriak estreinatzen ari zarete, nola lortu dituzue?

Aiert: Gaztetxeko teknikariek elektrotxaranga bat dute eta jada ez zituzten behar; gainera, lokalean ez zuten lekuri gordetzeko. Beraz, eman egin dizkigute, zaindu egingo ditugula jakinda.

Eneko: Atzo soinua probatzen ibili ginen eta ikusi genuen orgara lotuta montatzea posible genuela, beraz, gaur Trapagara eramango ditugu. Ea osorik bueltatzea lortzen dugun, maldan behera ibili beharko gara-eta!

DJ atala duzuenetik, kostatzen al zaizue berrien atala elikatzea?

Eneko: Bai, orain batez ere Instagrameko argitalpenak egiten ditugu. Gure jarraitzaile gehienak auzokoak dira eta elkarrekintza asko izaten ditugu.

Aiert: Lehen bideo asko egiten genituen Youtubera igotzeko, orain ia batere ez. Ez dugu apenas denborarik.

Martxa honetan jarraitzea zaila ikusten duzue?

Eneko: Saiatuko gara ahal dugun heinean gure bi atalak mantentzen: berriak eta DJa.

Aiert: Bi fitxaje berri egin ditugu, Oier Pando eta Begoñe Tolosa, institutuko lagunak. Nik Oierri DJ lanak irakatsiko dizkiot, eta Begoñe gure managerra izatea nahi dugu, argazkiak ateratzea eta abar.

Euskara zuen jardueran oso presente dago baina Telezorroza izena duzue, Telezorroza barik. Zer dela eta?

Eneko: Euskara sustatzea gure helburuetako bat da, horregatik argitalpen guztiak elebitan daude eta DJ festetan jarritako kanta asko euskaraz dira.

Aiert: Ideia izan genuenean Telezorroza jarri genion eta horrela geratu da, beste barik.

Zeintzuk dira zuen hurrengo hitzorduak?

Eneko: Aste Nagusirako "Konkis" moduko leihaketa bat antolatu nahi dugu konpartsen artean, goizean egiteko. Konfirmazioaren zain gaude.

Aiert: Eta auzoko jaietan DJ saio bat ematea gustoko genuke, ahal bada.



AGENDA

Uztailak 1, asteartea

19:00. Auzoka aurrean.

Ikuskizuna:

LA PUNKA PAKA:
"Chica Almodóvar".

Sarrera libre

Uztailak 2, asteazkena

21:30. Auzoka aurrean.

Aire zabaleko haurrentzako zinema

Sarrera libre

Uztailak 3, osteguna

18:30. Auzoka aurrean.

Ipuin musikala: "Herriaren bihotza".

Sarrera libre

Uztailak 6, ostirala

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Dantza ikuskizuna: "Tablao flamenco".

Sarrera: 15/18 €

Uztailak 7, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Dantza ikuskizuna: "Tablao flamenco".

Sarrera: 15/18 €

Uztailak 19, larunbata

20:30. Gaztetxean.

Kontzertua: LATZEN + ELBERETH.

Sarrera: 20€. (AGORTUAK)



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, **zm@zorrotzmorrotz.eus** helbidera idatzi.



Euri gorriaren azpian

Asier Serrano Lasa.

Erein. 2024. 164 orrialde.



Hogeita bost urte atzera, estatu kolpea hirira heldu zen egunean, ezagutu zuen idazletzatik erretiratu den emakumeak gizon antzezlea. Ordutik, zazpi urteko diktadura, eta hemezortzi urteko uestezko demokrazia. Orain, emakumea hirira itzuliko da, hiltzorian den gizonaren enkargua betetzera. Emakumeak abandonatu zuen sustraietara barne

bidaia da kontakizuna. Bazterreko biztanleen bisaiari ikusiko du alegiazko estatua nola aldatu den. Fikzioa beti izango da tokatu zaigun garaiko errealitate gordinena kontatzeko tresnarik zehatzena. Asier Serranok estilo xehea du, argia, herdoiltzen ez dena. Poesiak zeharkatzen du kontakizuna, narrazio ezin bikainagoa eskaintzeko irakurleari. Istorio bortitza da, lohitsuia, baina dena du ederretik. Asier Serranoren uniibertsoaren ataria da Euri gorriaren azpian; nobela honek sortzen duen liluraren aurrean ezin dira begiak itxi.



EZEZEZ: "Kabakriba"

(2025)



Azkenaldian, euskal eszenan ildo komertzialetik at kokatzen diren taldeen gorakada nabarmena da. Proposamen horien artean, EZEZEZ aurkeztu nahi dizuegu, Bilbo eta inguruetatik datorren laukotea. Duela hiru urte sortutako proiektua dugu honako hau,

eta berau osatzen dutenak eskarmentu handiko musikariak dira. Izenburu arraroa duen "Kabakriba" beraien bigarren lan luzea dugu, lehenengoa euskara hutsean, bizkaieraz gainera, eta horrek talde berezi honi beste puntu desberdintzaile bat eman dio.

12 kantu, 40 minutu. Single eta EP laburren garai honetan arraroa baina, era berean, eskertzekoa. Bilbo-ko Errekaldeberri auzoko Eten Espazio Sonoro estudioan konposatua eta grabatua izan da, eta ekoizpena taldeak berak egin du. Estiloa definitzea ez da erraza, batez ere rock edo pop gordina ez denean. Hainbat joeraren nahasketa dela esan dezakegu, zaporea ateratzeko dastatu beharreko pieza. Azala bera kontuan hartuta sumatu daiteke proiektu ez-konbentzional baten aurrean gaudela, baina itxurak ez gaitu atzera bota behar, ezta? Batek baino gehiagok ezusteko handia har dezake "Kabakriba" entzun ondoren.



LÁPICES liburudenda

Lapices liburu-dendak 24 urte daramatza Astillero kaleko 8. zenbakian duen lokalean. Bertan, eskolako eta bulegoko materiala, liburuetako nobedade guztiak eta enkarguzko liburuak aurki ditzakegu. Azken urteotan, gainera, eskaintzen dituzten zerbitzuak berrituz joan dira, eta lehen zuten inprimategiko zerbitzu klasikoari, brodatzea, koadrilentzako eta enpresentzako arropa-estanzazioa, larruan edota zuran laser-grabatu gehitu dizkiote. Hori guztia dendan bertan egiten dute, hirugarrenik tartean sartu gabe.

Itziar Duyos arduradunak adierazi du bere motibaziorik handiena bezeroaren gogo-betetasuna dela, ez bakarrik erosten duenarena, baita azken hartzailearena ere: “Bezeroak oparitzen duen produktua egokia dela ikustea izugarritzko poztasuna da niretzat”.

Udako ordutegia:

Astelehenetik ostegunera:
9:30 – 13:30 eta 16:30 – 19:00
Ostiralean: 9:30 – 13:30

Untziola kalea, 8. Zorrotza



LIBURUDENDA PAPERDENDA
PERTSONALIZAZIOAK
UNTZIOLA KALEA 8

PERSONALIZACIONES
Capricho

cafe**txinbo**

Especialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

LASTER ⚡

**Elektrizitatea
elektronika**

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04

**ZORROTZA KASTREXANA
ERREP. 42. MOD. 88
ZORROTZA 48013**

Zure iragarkia

ZM

aldizkarian

Euskara
sustatu
Zorrotzan!!

Tarifak eta informazioa:
zm@zorrotzmorrotz.eus





Ganguren (477 m.)

MANU COBO

Bilboko herritik (10 m) iparraldera mendilerro batek osatzen dauen gailurra, El Botxo eta Txorierriko harana bereizten dituena. Gailurra Bilbo/Bilbo erdigunetik 5,5 km ingurura dau (Abandoko geltokitik). Gangurengana mendilerroa Lutxanan hasten da (8 m) eta, lehen aldapen ondoren, Enekuriar iristen da (130 m). Handik San Bernabe (225 m) eta Elorriaga edo Banderas (222 m) gailurretara iristen da, eta handik Artxanda mendirantz (260 m) jarraitzen dau.

Mendi hori aisialdirako erabiltzen da, eta oso ezaguna da bere izena zeraman jolas-parkeagatik, mendiaren egaletan egoalako. Jarraituen Meazabal (292 m) eta Iturritxualde (Monte Avril, 386 m), Gangurenera heltzeko. Jeitsiko gara lepora eta atsedengunea dan Elorritxueta (370 m), honek Kuskuburu (431 m) ganagaz egingo

dosku banalerroa, mendilerroa Erletxesen (100 m) amaitzen da.

Artxanda mendien, lehenago Sondikabaso iznegaz ezagune zala, galtzada bat egoan, Zamudiorantz eta mendi hauetan Jentil harri (Trikuharri, Dolmena) bat agertzen dala, Jose Saratxagak aurkitutakoa (1966en, Irumugarrieta 1 izenegaz, Iturritxualde ta Ganguren artean).

Auzotik joateko erreza dekoгу aurreko baten komentatutako Artxandarako bidea hartute (Sanitik, Bilbo erditik (Lasalbe) edo Otxarkoagatik, aurrera jarraituz Tontorrera heldu arte. Gero jeisteko aukera asko dekoгу, Otxarretik, Galdakaorantza, Txorierri-rantza edo Etxebarrirantz, danak errezak eta itzultzeko busez.

Bejoindeizuela!!!

TXOKO FEMINISTA



LGBTIQ+ pertsonekin lotutako osasun-bereizketa ingurumen-, gizarte-, kultura- eta politika-faktoreen arteko elkarreragin konplexu baten ondorioz gertatzen da. LGBTIQ+ pertsonen osasun-diskriminazioa bizitzeko arrazoi nagusiak honako hauek izan daitezke: i) heterosexualitatea lehenesten duten kultura- eta gizarte-arauak; ii) orientazio sexualarekin, genero-identitatearekin eta sexu-ezaugarriekin lotutako gutxiengoaren estresa; iii) biktimizazioa; iv) diskriminazioa (indibiduala zein instituzionala); eta v) estigmatizazioa.

LGBTIQ+ pertsonen hainbat oztopo dituzte osasun-arretarako sarbiderako. Horien artean badaude: aurreiritziz jositako langileen jarrera eta portaera intolerante zein diskriminatzaila, jakin-min desegokia barne; haien beharrak aitortuak ez izatea; LGBTIQ+ pertsonen umiliazioa; tratamendua ukatzea; edo genero-identitatea, orientazio sexuala zein sexu-ezaugarriak azaleratzeko beldurra izatea. Gainera, LGBTIQ+ pertsonen osasun-zerbitzuetara jotzen dutenean, profesionalak maiz heterosexualtasuna suposatzen diete eta hizkera hori erabiltzen dute, eta horrek LGBTIQ+ pertsonak baztertuak eta ikusezin sentiarazten ditu.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Eserlekuak kendu bizikidetza-arazoak konpontzeko?

Udaltzaingoak proposatuta, "bizikidetza-arazoak konpontzeko" Udalak hiru eserleku kendu ditu Fray Juan kalean, prentsa-kioskoaren ondoan. Eserleku horiek jende askok erabiltzen zituen, jende asko batzen den autobus-markesina baten ondoan baitzeuden. Benetan ziren banku horiek "bizikidetza-arazo"en iturri? Eserlekuak kenduta, arazoa bukatu da ala beste neurri batzuk hartu beharko lirateke? Bizikidetza-arazoak egon daitezkeen Bilboko eremu guztietako eserleku guztiak kenduko ote dituzte?



RISKO

Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*

Jirabiraka Zorrotzako auzobiran

Egunero jirabiraka gabiltza, fisikoki eta burmuinari zukua ateratzean. Honaino, nobedaderik ez. Zinegotzi lanetan ere bai. Bilbon, munduko hiriburua izanik, batzuetan nahi baino zeregin nekezagoa da eta. Etengabe jirabiraka. Hala bulegoan udal zirrikitueta espediente bat eskatzeak dakarren letania, nola edozein sailletako kontratazio mahai batera joatea.

Bestela, barne bilera batean egon gaitezke, estrategiak prestatzeko eta agendak errepasatzeko, edo egun agintean daudenekin proposamenen bat negoziatzeko. Administrazio kontseilueta deialdiak ugaritzen dira, baita ekitaldi instituzionalen presentzia ziurtatzeko edo ezeztatze eskaerak ere. Ezkontzak aipatu dituzu? Ba bai, maiz, bikote askoren bizitzaren etapa berriak gure sinadura darama.

Aitzitik, parte naizen udal taldean argi eta garbi daukagu gure jardueraren ardatza zein den: kalean eta udaletxean pisu berbera eduki behar du gure jardunak. Onartu beharra daukat esatea erraza dela oso, baina teoriatik errealitate jirabiraka gabiltza. Udala gertuen



PATXI XABIER
FERNÁNDEZ MONJE
EH Bilduko Bilboko
zinegotzia
@jabotxa62

“*Eta biraka*

IKASTEKO, letra

larriz. Ikasteko

abagunea izan

genuen eragile

askorekin hitz egin

ostean...

dagoen instituzioa izanik, gakoa hau da: beharrezkoa den hurbiltasun hori nola lortu? Nola bihurtu gertutasuna eraginkorra pertsonen bizitzak hobetze aldera?

Normaltasunak dio eragileekin bilerak ez direla falta: kezkek, egitasmoak, proposamenak, salaketak, zalantzak edota kudeaketaren gabeziak ezagutzeko parada izaten dugu. Ongi etorriak dira, baina ia beti motz geratzen zaizkigu eta nahi baino gehiagotan tes-tuingururitik at.

Beraz, buruari eraginez, jirabiraka genbiltzan eta jiratzeari utzi genion...

biratze “hutsa”-ri ekiteko eta horrela auzobirak jaio ziren.

Trukoa “erraza” da oso: auzoetako eragilerik sustraituenekin eta arlo estrategikoetan murgildu edota gizarte-ehuna ordezkatzen dutenekin egoteko, entzutea eta, batez ere, ikastea. Errekalden eta Santutxu ibili ginen aurreko hilabeteetan eta pasa den astean Zorrotzaren txanda heldu zen.

Eta biraka IKASTEKO, letra larriz. Ikasteko abagunea izan genuen eragile askorekin hitz egin ostean: eskoletako eta institutuko zuzendariekin; IGEetako kideekin; Auzoka eta Gure Lurraren proiektuen partaideekin; adinekoen etxeko erabiltzaileekin; Lagunkoia ekimen txalogarriaren bultzatzaileekin edota, besteak beste, Auzo Elkarteen boluntarioekin auzoan zenbat falta den egiaztatzeko.

Jira-biraka gabiltza, Zorrotzatik Bilboko beste auzo batera mugituko gara, errealitate desberdinetan sakontzeko, baina beti nahi berberarekin: egiten dugunaren berri eman eta, batik bat, herritarrak zuzenean entzun. Biraka hobetzeko.



Zorrotzako portuan aldarrika

Pasa den ekainaren 5ean 50 urte bete ziren Gabriel Aresti poeta euskaldun handia hil zela. Ez dut nahi ez naizena armatzea, eta ez naiz batere Arestiren obran aditua, ezta oso poesiazalea ere. Hala ere, jakina da, euskal literaturako poetarik handiena ez bada, euskal literaturaren figurarik handienetakoa, eta zalantzarik gabe, euskal literaturaren berritzaile nagusietarikoa izan zela.

Euskal literaturako figura garrantzitsuenen sailkapena egitera ausartzen ez naizen bezala, Arestiren lanik garrantzitsuena zein izan zen ere ez dut esango. Baina *Nire aitaren etxea* defendatu nahi dudanez, nik bat aukeratu behar badut, Arestik 1963an idatzitako *Zorrotzako Portuan aldarrika* poemaren alde egingo nuke.

Poema horretan, gure auzoko kaiko lanegun bat deskribatzen du Arestik. Anton eta Gilen izeneko pertsonaien bidez, errealismoz eta gizatasunez tintatzen du egileak bertan gertatzen den guztia uneoro. Lanaren gogortasuna eta nekea presente hartuta, langileen elkartasunaren aldarrikapen ederra da.

Zorrotzarra naizen aldetik, oso polita eta interesgarria



AITOR MARÍN

“ Arestik gaur
egungo auzoko
portuko lanegun
arrunta deskribatu
beharko balu, ziur
nago Zorrotzako
portuan aldarrika
egongo litzatekeela
berriro

egiten zait une hartako bizipenak irudikatu ahal izatea, gure auzoko lekuri garrantzitsuenetarikoa batean. Baina zer da gure hori gaur egun? Ba Anton eta Gilen bezalako langileak badaude, baina ez enborrak moztzen, lantegi zaharkitu pare batean lanean baizik. Egun, aleman barkurik ez da Zorrotzara iristen. Horren ordez, eta uretatik heldu beharrean, errepidetik auzoko erdigunea zeharkatu ondoren, Sader eta Profersa lantegi kutsagarrietan tratatzeko hondakin toxikoak dituzten kamioiak iristen dira etengabe. Batzuk hurbiletik, baina kanpotik datozenak ere badaude. Saderrek legez jaso zezakeen hondakin arriskutsuen kopurua

gainditu du azken urteotan. Eusko Jaurlaritzak, gertaera horiek zigortu beharrean, enpresa saritu du baimendutako kuota handituz.

Enpresek eta udal agintariek askotan adierazi dute lantegiek isuritako kea ez dela osasunerako kaltegarria. Ez gaude batere ados hemen bizi garen bizilagunok. Idatzia poesian aditua ez naizela onartzen hasi dut. Zientzian ere ez naiz jantzia, baina urteetan uko egin diote neurketak egiteari, eta egin izan diren banaknek (azkena institutuko ikasleek egindako herri zientziako azterketa) kontrakoa diote.

Ezinezkoa da Arestik 2025ean poemarik idaztea, jakina. Baina gaur egungo auzoko portuko lanegun arrunta deskribatu beharko balu, ziur nago *Zorrotzako portuan aldarrika* egongo litzatekeela berriro. Kasu honetan, ordea, auzokideokin batera, “*Sader Profersa kanpora!*” aldarrikatuko luke.

Gizon-emakumeen alde paratuta, Gabriel Arestik usain jasanezinagatik kexatu eta arnasa hartzeko aire garbia eskatzen duten bizilagunen alde egingo lukeela zalantzarik ez dut. Izan ere, bada garaia lantegi hauek hemendik lekualdatzeko. Onartezina da, utzikeria instituzionaleko hainbeste urteren ostean, industria horiek hamaika mila biztanle dituen auzo batetik metro gutxitara jarraitzea.



Naia

Inauteria oso gustuko dut! Adin guztietakoek batera parte hartzen dute eta oso giro polita dagoela uste dut.



Lamas

Zorrotza Eguna beti kuadrillan pasatzen dugu eta jaietarako prestakuntza bezala bizi izan dut nik beti.

IRATZE PÉREZ



Herri ospakizunak

Zorrotzako jaiez aparte, zein da Zorrotzan egiten diren ospakizunen artean zure gogokoena??



Rubén

Zorrotza Egunean dagoen auzo-giroa ezin hobea da, eta herri-bazkaria egiten denez, hobeto! Mozorrotzea gustukoa dudanez, inauteria ere oso gustukoa dut.



Iñigo

Auzokideen arteko loturak sendotzen dituzten guztietan topera hartzen dut parte. Halako egun berezi gehiago egotea nahiko nuke.



Ayllette

Niri San Juan eguna izugarri gustatzen zait. Egun berezia da eta umeez ikaragarri disfrutatzen dute giroa

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidex estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

B
BiziFitness
CROSSCENTER

CROSS TRAINING
eta
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
guztionez

Zure zain gaude!

ZALBIDEA ESTRATA, 13 623106531

Ford

Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12



Bilbao

BILBON

EUSKARAZ



25/26 ikasturteko aurrematrikula prematrícula del curso 25/26



euskara praktikoa

EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

MAIATZA/MAYO

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

EKAINA/JUNIO

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

30

Egin
aurrematrikula



ABANTAILAK:

- Ikasturte honetako **prezioari eutsi**.
- Ordainketa malguagoa.
- Lehetasuna taldeak eratzeko orduan.

Maiatzaren 5etik ekainaren 30era arte,
www.aek.eus webgunean edo
AEKren edozein euskaltegitan.

VENTAJAS:

- Se **mantiene el precio** de este curso.
- Mayor flexibilidad en el pago.
- Preferencia a la hora de formar grupos.

Del **5 de mayo hasta el 30 de junio**,
en www.aek.eus o en cualquier
euskaltegi de AEK.

ZORROTZA AEK euskaltegia

Zalbidea 7, beheka | **94 441 49 20** | zorrotza@aec.eus

www.aek.eus